

**SAIO KLINIKO OROKORRA – BASURTUKO UNIBERTSITATE OSPITALEA****APARATU DIGESTIBO ZERBITZUA****HIZLARIA: NEREA HERNANDEZ ARETXABALETAKO DK.****MODERATZAILEA: JANIRE PRIETO ELORDUI DK.****2019KO IRAILAREN 6AN, 8:15EAN. GORBEIA EKITALDI-ARETOAN (GOBERNU PABILOIA))****KONTSULTA ARRAZOIA**

Sabeleko mina eta sukarra aurkezten dituen 43 urteko gizona.

**AURREKARI PERTSONALAK**

- Ez medikamentu alergia ezagunik.
- Ohitura toxikoak: 1 pakete/eguneko erretzailea. 4-5 UBE/eguneko alkohol edalaria. Noizbehinkako kanabis eta kokaina kontsumitzailea. Babes gabeko sexu harremanak.
- Ez DM-ik, ez hipertentsio arterialik, ez dislipemiarik.
- Ez gaixotasun kardiologiko ez arnas aparatuko gaixotasunik.
- Ez aurreko gaixotasun digestiborik
- Ez ohiko tratamendurik.

Aurrekari kirugikoak:

- 2018/11/20-an ebakuntza abzesu eta uzki inguruko fistula batengatik, ebakidura, drainadura eta desbridamendu eta fistulotomiarekin. 2018/11/21an alta emanda konplikaziorik gabe.

**EGUNGO GAIKOTASUNA**

Pazienteak duela egun bat sabeleko eskuin aldean hasitako mina aurkezten du, sorbalda eta giltzurrun aldera hedatzen dena. Mina etengabekoa da eta ez da analgesiko arruntekin hobetzen. Goragaleak ditu, botakarik gabe. 39,5°Cko sukarra izan du.

Ez du gernu aparatuko klinikarik esta beste sintomarik ere.

**AZTERKETA FISIKOA**

PA 160/98 mmHg FC 100 Temp 36,6°C SO2 99%

- Egoera orokor ona, baina min nabariarekin. Lekuko eta denborako orientazio egokiak. Ondo hidratatuta. Kolore eta perfusio egokiak. Arnas maiztasun normala.
  - Bihotz auskultazioa: erritmikoa, murmuilorik gabe.
  - Arnas auskultazioa: arnas murmuilo arrunta.
  - Sabeleko azterketa: Zarata peristaltiko normalak. Biguina eta deprimigarria, sabeleko eskuin alde eta hipokondrioan mingarria, Murphy positiboa. Ez du masa zein megaliarik.
- Eskuin aldeko giltzurrun perkutsio positiboa.
- Hanketan ez edemarik ezta zain sakonetako tronbosien zeinurik.

**URGENTZIETAKO PROBA OSAGARRIAK:**

- Bular eta Sabel erradiografia normalak.
- Odol analisisa:
  - \* Gasometria benosoa: pH 7.47, PCO2 38 mmHg, HCO3 28 mmol/L. Laktato 1,4 mmol/L.
  - \* Biokimika: PCR 344 mg/L. PCT 3.98. ng/mL. Giltzurrun funtzio normala. Ez beste alteraziorik.
  - \* Hematimetria: Hb 14 g/dL, plaketa normalak. Leukozitoak 29300, 86% neutrofiloak.
  - \* Koagulazio normala.

- Gernu analisi normala.
  - Gernu eta odol kultiboak emaitzen zain.
  - Abdomen eta pelbiseko TC: heste itsu - eskuineko heste lodiko neoplasia primarioa eta gibel metastasiekin bat datorren irudia.
- 
- **Ba al dago beste aukera diagnostikorik irudi frogak proposatutakoaz gain?**
  - **Zer egingo zenukete orain?**
  - **Zein proba osagarri gehituko zenituzkete?**